

## ETIKA KATOLIKOAREN OINARRITZE LOGIKOAZ

1-a.- Etika zientzia praktikoa da. Zientzia da, baina bere benetako edukiaren oinarria ezagutza unibertsalean aurkitzen da soilik.

Zientzia materialista aztertzen badugu ikasten ahal dugu ezen halako zientzia beti fundamentu esperimentalak duela. Zientzia esperientzia materialean oinarritzen da beti, eta beraz sekula ezin da zientzia materialetik ezagutza unibertsala iritsi, indukzioaz ezinezkoa baita ezagutzea a priori (indukzioaz, ezinezkoa den arren materialaren ezaugarri unibertsalak ezagutzea, mundu materialaren partikularitateen berri badugu, eta ezagutza hori oso erabilgarria da, oso praktikoa, jakina denez). Eta ezagutza unibertsala, definizioz, ezagutza a prioristikoa ere bada, ezagutza pribazioa ere bai. Eta pribazioa baldin bada, orokorrean, gaizkiaren kausa, orduan ondorioztatu behar dugu ezagutza unibertsala ongiaren izaeraz jantzita dagoela. Misterioa da, bai, baina misterio hori santua da. Eta hori ondorioztatzen ahal da errebelazioa ezagutu gabe, hau da, Aristoteles-en antzera, teologia naturala eginez, probidentziaren posibilitatea ere ukatuz. Eta hori nik aristotelismoa zuzendu beharra dagoela diot. Ez nolana ere bai argumentatuz, zeren ezagutza pribazioa bate-tik baitaiteke probidentziarik.

1-b.- Zientzia materialista oro oinarritzen da deskripzioan. Hori esan daiteke. Errepresentazioa da bere funtsean. Baina zientzia material batetik, izan hau psikologia, soziologia, antropologia, eta baita politika ere, zientzia material batetik, des-

kripzioa denez bere funtsean, ezinezkoa da ondorioztatzea etikaren edukia bezala ezagutzen dena, hau da, ongiaren eta gaizkiaren inguruko normatibarik. Hori falazia naturalistan erortzea litzateke, eta horregatik esaten da ezen zientzia materialistatik ezinezkoa dela etikaren eduki egiazkora iritsi, eduki normatiboa dena. Zeren eduki normatibo horren jatorria ezagutza unibertsala baita, eta zientzia experimental orotik ez dago halako ezagutza a prioristikora iristerik. Indukzioaren problema da hori funtsean, eta kuantifikatzaileen logikan bada sinbolizagarria pausu horren ezina, objektua materiazkoa baldin bada, orduan ezinezkoa da haren estudiotik aterea unibertsal bihurtu, a priori ezin esan dezakegu kasu horretan, zeina baita zientzia materialista guztiena, baita zientzia politikoarena ere, dakigunik. Intelijenteagoa da pentsatzea, eta kontuan edukitzea, adibidez, ezusteak aurkitzen ahal ditugula.

1-c.- Eta ezagutza unibertsal batez dakigu misterio santua dela, eta horregatik hortik ongiuz eta gaizkiaz normatibarik sekula ez da ateratzen modu faltsuan, zeren ezagutza pribaziogabean jada hor baitugu printzipio etiko bat bere izaeran, eta horregatik hor ez da falazia naturalistarik sortzen. Falazia hori gertatzen da ezagutza experimental orotan, ezagutza horretatik ondorio praktikoak ateratzen ditugunean, hain zuzen ere, erabakitzen dugunean zer den on eta zer den gaizto. Hor etikaren edukian sartzen gara esperientziatik, zientzia materialistatik, eta ateratzen ditugun "aholkuak" oso intelijenteak izan daitezke, baina ez dute ezagutza unibertsal a prioristiko batek duen ziurtasun absolutua, eta hortik etorkizun denaz erabakiak hartzen dira, eta hor indukzioa ez da perfektua, bistan dagoenaz, eta fallua, laster edo berandu, ziurtatua dagoela afirma daiteke. Eta imperfekzio horretaz jabetzea ona da.

1-d.- Baina ezagutza a prioristiko batetik ateratako normatiba etikoa, ongiuz eta gaizkiaz, falazia gabekoa da, eta arrakastara eroaten du segitzen duena. Halakoa, "hil arren, ez da betirako galduko". Eta onik ateratzea da, duda barik, etikaren helburu nagusia, zoriona, eta, gehiago oraïndik, zoriona bere baitan hartzen

duen jakituria, bai, jakituria batez ere, ezagutza. Misterio santu baten ezagutza definitiboa. Modu logiko batez iritsi baikara definitzera ezagutza unibertsalaren izaera etikoa. Nahiz eta ezagutza unibertsal hori, esperientzio orotik goragokoa denez, ez den mundu honetakoa, eta bai beste mundu hobe batekoa, mundu hau konprenitzen duena modu inefable batean. Hau da, inefablea, infaliblea, falta gabea, fallu gabea, eta fallua hartzen badugu pribazio batengatik edo bestetik gertatzen dela, orduan ezagutza hori pribaziogabea da, beraz, santua. Misterioa, bai, baina misterioa santua dela ikasi dugu. Santu bezala definitu dugu.

1-e.- Teologia naturalean egongo ginateke ez balitz errebelazioaren historia bat gertatu delako. Eta errebelazio horretan herri aukeratu bat dago, zeinak baititu eskatzen "seinaleak". San Pablok bazioen nola judutarrek seinaleak eskatzen zituzten, grekoek, osterak, ezagutza. Eta seinale horiek erakusten digute ezagutza unibertsal hori, a prioristikoa, badela benetan, egiazki, esistitzen. Mirari bat judizio sintetiko a priori bat da, eta hori ezinezkoa da inolaz ere esperientziatik, ezagutza unibertsala edukitzea suposatzen duelako, eta halako ezagutza esperientzia orotik gorago dago, mundu material honetatik gorago. Galdetzen ahal da ea guzti hau teorizazio inpekable bat besterik ez den, harri bizi bat filosofoak toerizatu, ala egiazki esistitzen dela halako ezagutza unibertsala, zeina baita a prioristikoa eta pribaziogabea definizioz, beraz ez du bizitzaren pribaziorik, ezta askatasunaren pribaziorik, ezta boterearen pribaziorik, eta hola, bikaintasun batzuk seinalatzearen.

Beste bikaintasun bat izan daiteke ezagutza unibertsal horrek ez edukitzea "inplikazio materialaren" pribaziorik, eta hortik deduzitzen ahal da ba ahal dela probidentea izan, eta historia materialean, gure historian, interbenitu. Eta beste monoteisten kontrara "en persona" ere, gizon eginez, diogu katolikook. Eta beste modu askotan ere "parte" hartzen ahal du, eta gidatu.

2-a.- Laburbilduz esan daiteke etika katolikoa oinarritzen dela Moisesen manamenduetan eta Jesusek erantsi zuen har-

tan. Eta lehen manamendua da Jainkoa maitatzea gauza guztien gainetik. Misterio santu egiten zaigun Jainkoa lehenestea denen buru. Eta oso logikoa da hori. Zeren, eman dezagun, lehenesten badugu beste inor, halakoak edukiko du zientzia bat oinarritua esperientzian, beraz eskarmentu partikularra edukiko du, eta praktikan faliblea izango da beti, eta bere falluakin batera eroango gaitu galerara. Baina misterio santu egiten zaigun ezagutza pribaziogabea lehenesten badugu hor jada "hil arren" ez gaude eroanak galerara, eta bai "mundu honetakoa ez den bizien erreinu goragoko hartara".

Guk gainera hierarkiak egiten ditugu, eta goitik baditugu ere, behetik ere baditugu, zertara goikoak idolatratu behekoak gutxietsiz?, goikoekin komunista eta behekoekin tirano?, ez al dugu pentsatu hori infinituraino luzatzen ahal dela eta gure goikoek ere gauza bera egin dezaketela, hau da, gu mesprezatu?. Kierkegaard-ek komentatzen du Aristofanes-en komedia bat, eta bertan galdetzen zaio bati ea zergatik sinesten duen jainkoengan, eta hark erantzuten du:

-gorroto nautelako.

Eta idolatriak, esango nuke nik, ondorio triste hori dakar, gure goikoek, harroak direlako, gu gorrotatzea ere. Beraz, ez gaitezen erori idolatria funestoan. Maite dezagun behar den modu egiazkoan eta ondoen geure burua.

2-b.- Gero, Moisesenak alde bat utzi gabe, Jesusek agindu zuen elkar maitatzea Berak maite izan zuen moduan. Baina Haren maitasuna sortzen da ezagutza pribaziogabe baten baitan, eta santua denez misteriotsua zaigu, (misterio zaigu santutasuna gaiztooi) baina ikasiak gaude piska bat geure burua maitatzen, eta agindu zaigu geure burua maitatzen dugun bezain ondo maitatu behar ditugula besteak ere. Aztarnak baditugu, beraz, manamendu horiek betetzen ikasteko.

2-c.- Moisesenak orain nik ez ditut denak gogoratzen. Filosofoondako funtsezkoa da bat: testigantza faltsurik eta ge-

zurrik ez esatea. Hori edozein filosofoaren helburua dela ezin ukatu daiteke: egia denen buru.

2-d.- Baina orain komentatu nahi dut beste bat: ez duzu Jainkoaren izena alferrik hartuko. Nik sarritan pentsatu izan dut ezen Frantziako iraultzarekin ez zela asmatu lehen aldiz erlijioaren bereiztea politikatik. Jada Moisesen lege horrek hori agintzen du. Eta egiazkoa da, zeren zientzia politikoa zientzia experimentalak baita, praktikoa, esperientzia zientifikoan oinarritua, eta absurdoa da politiko batek, edozeinek, bere zientzia politikoa parekatzea ezagutza unibertsalarekin, zeina esperientzia orotik gain baitago, izanik izaeraz pribaziogabea, santua, eta hori ezin afirma daiteke inoren zientzia politikoz. Horregatik Jesusek ematen duen bakea ez da “mundu honek ematen duenaren modukoa”, zeina baita faliblea. Eta zuzena da bereizita egotea politika eta erlijioa.

2-e.- Beste manamendu bat ere komentatzen ahal da, gaur egun zer esan asko ematen duena. Ezkontza nahastearena. Adulterioarena. Nik behin eduki nuen eztabaida bat progresista batekin, eta ni ere progresista naiz, eta bat gentozen honetan: inportanteena “legala” izatea da. Eta “legala” izatea denok dakigu, gutxi gora behera, zer den. Bestea ez lagatzea gaizki, bestea ez mintzea.

2-f.- Nik garbi daukat, ongiaren eta gaizkiaren zientzia nagusian dihardut beti. Eta ezagutza unibertsalaz teorizazio egiazko bat egin dut, tesoro bat aurkitu dut, baina galdetzen ahal da ea ez ote den izango teorizazioa bakarrik beste barik, hau da, ez dela esistitzen halako ezagutza unibertsala, ala, ostera, esistitzen dela. Niretzat froga bakarra dugu, nik teorizatzen dudana ezagutza unibertsal horrek, pribaziogabea baldin bada, ba ahal du inplikazio materialik, eta “inplikazio material” hori gauzatu da errebelazioaren historian, non “seinaleak” eman zaizkigun, judizio sintetikoak a priori, osatzeak, eta hola, erakutsiz badela ezagutza unibertsal hori, misterio santu hori, eta hortik deribatzen da, errebelazioaren historia estudiatzetik, Testamentu Zaharra,

Testamentu Berria eta Eliza Katolikoaren historia (eskubide kanonigo beti aktulizagarriraino ere), hortik deribatzen da ezinago esplizituen nire moral praktikoa, zeinak jatorri unibertsala duen. Infaliblea, beraz, da. Jainko probidentzial batek eragina. Ahal baitu Jainko horrek, esperientzia orotik gain den ezagutza unibertsal pribaziogabe horrek, mundu material esperientziazko honetan eragin, nahi ahala, baina ahaztu gabe borondate santua duela. Eta Haren borondatea nahi izatea da hoberena, zeren Hark deitzen baikaitu perfekziora, eta hori da guk gure barrenean nahi duguna, perfektuak izan, nahiz eta Haren nagusitasuna ez den horregatik ikaritzen, aingeru eroriak sinesterazi zion moduan gizonari, zeren libre izatea perfekzioa ere baita, baina libre bagara etorkizun dena indeterminatua zaigu, eta ez dugu Haren moduan, Bera ere libre den arren, ezagutza a prioristikorik, eta Haren beldurra etortzen zaigu. Beraz gure perfekzioa ez dugu ondo ezagutzen nolakoa izango den. Haren gloriatik eternitate bateko alde beti, hori bai. Bistan dago ezen gu historikoak gara beti, gu kreaturak gara, eta desberdinak denok denon artean, bakoitzak bere nortasunari eusten diolarik, eta nortasun hori osatua ikustea da, beste barik, bakoitzaren perfekzioa.

Orban gabeko intelektua zuen Ama Birginak ondo zekusan hasiera hasieratik Haren nagusitasuna, eta kontzepzioaren momentutik bertatik intelektu falaziagabea zuela ezin ukatu daiteke. Hura izan daiteke gure modeloa. Hura da autoritate maximoa katolikoan artean Jesusen ostean.

2-g.- Eta horregatik katoliko pratikanteok ez gaude desabantailan mundu honetan. Jesusek bazigun esan astuto izan behar ginela, eta astuziarekin joko handia egiten ahal dugu, bistan dago, eta ez da gaizto jokatzeari.

3-a.- Eskubide kanonigoaz zerbait esateko gogoia dut. Logikan legea kuantifikatzaile unibertsalaren egitura du, kondizionalaren egitura zehazki esateko. Baldintza. Ni behin, konfundiduta, Donostiako katedraleko kanonigoaren konfesionarioa joan nintzen. Sentsualitatearen desordenaren bat zen konfesatu

niona eta hark infernua dibujatu zidan bere sermoian, eta ni mariatu egin nintzen, eta esan nion mariatzen nengoela, eta zorabiatu nintzen esku batekin eusten nintzela konfesionariora, eta amaitu zuenean airea hartzera joateko esan zidan.

Beraz, kanonigoek, nik ondorioztatzen dut, infernua dibujatzen dute beti, eta hobe da abade modernoagoetara joatea, aukeran. Eta oso modernoa bada ere abade bat, halakoak ezin dezake ukatu kreazioa konpletua izateko infernuekin ere osatzen dela, ilunpeetako erreinuekin ere. Eta gaizkiaz hori jakinik argi dago hautua: ongia nahiago dut. Eta horretaz ikasten ari gara egotziak izan ginenetik paradisu terrenaletik.

*Roman Garmendia*